

Zazpi jauziak

**Araban euskaraz bizi nahi dugu,
baina legeak zapaltzen gaitu.**

**Euskarak jauzia egin behar du,
bigarren mailatik lehenera.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza euskaraz (e)ta euskararen alde.**

**Zazpi jauziak justizia gauzatzeko,
zazpiek jauzi askatasunerako.**

Bat

**Bizkaian euskeraz bizi gura do(g)u,
baina legeak zapaltzen gaitu.**

**Euskerak jauzia egin behar dau,
bigarren mallatik lehenera.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza euskeraz (e)ta euskeraren alde.**

**Zazpi jauziak justizia gauzatzeko,
zazpiak jauzi askatasunerako.**

Bi

**Gipuzko(a)n euskeraz bizi nahi dina(g)u,
baina legeak zapaltzen gaitin.**

**Euskerak jauzia egin behar din,
bigarren mailatik lehenera.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza euskeraz (e)ta euskeraren alde.**

**Zazpi jauziak justizia gauzatzeko,
zazpiak jauzi askatasunerako.**

Hiru

**Lapurdin eskuaraz bizi nahi dia(g)u,
baina legeak zapaltzen gaitik.**

**Eskuarak jauzia egin behar dik,
bigarren mailatik lehenera.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza eskuaraz (e)ta eskuararen alde.**

**Zazpi jauziak justizia gauzatzeko,
zazpiek jauzi askatasunerako.**

Lau

**Nafarroa Be(he)rean eskualdunek,
eskuaraz bizi nahi baina ezin.**

**Eskuarak jauzia egin behar d(i)xi,
bigarren mailatik lehenera.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza eskuaraz (e)ta eskuararen alde.**

**Zazpi jauziak justizia gauzatzeko,
zazpiek jauzi askatasunerako.**

Bost

**Nafarroa Garaian eskualdunek,
eskuaraz bizi nahi baina ezin.**

**Eskuarak jauzia egin behar du,
bigarrenetik le(he)nbizikorat.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza eskuaraz (e)ta eskuararen alde.**

**Zazpi jauziak justizia gauzatzeko,
zazpiek jauzi askatasunerako.**

Sei

**Xibero(a)n gük eüsk(ar)az bizi nahi dügü,
bena Frantziak zapaltzen gitaü.**

**Eüsk(ar)ak jauzi eijerra (eg)in behar dü,
bigerren mailatik lehene(a)lat.**

**“Euskara jalgi plazara eta mundura”,
dantza eüsk(ar)az eta eüskararen alte.**

**Zazpi jauziak jüstizia gaüzatzeko,
zazpiek jauzi askatarzüna(r)entako.**

Zazpi

Euskal Herrian Euskaraz